

HITZEZ HITZ HIZKUNTZA
ERAIKITZEN

HAU EGURALDIA!

Ainhoa Zelaia Apraiz

AURKIBIDEA

SARRERA.....	1
HIZTEGIA ABERASTEN	2
Lehen jarduera.....	2
Bigarren jarduera.....	3
Hirugarren jarduera.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.
Laugarren jarduera	5
Bosgarren jarduera	6
Seigarren jarduera	7
Zazpigarren jarduera.....	8
Zortzigarren jarduera.....	11
ENTZUN ETA IKUSI AURRETIKOA.....	12
IKUSI ETA ENTZUNDAKOAREN ULERMENA: TELESAlOIA	14
Entzun eta ikusi ondorengoia	14
Entzun eta ikusitakoari buruzko hausnarketa	16
IDATZITAKOAREN ULERMENA	17
Eguraldi-iragarpena 1	17
Ulermena sakontzen 1	18
Eguraldi-iragarpena 2	19
Ulermena sakontzen 2.....	20
Eguraldi-iragarpena 3	21
Ulermena sakontzen 3	22
Eguraldi-iragarpena 4	23
Ulermena sakontzen 4.....	24
LEHEN PROPOSAMENA	26
Lehen jarduera: telelailo bat aztertu.	27
Bigarren jarduera: bideoa grabatu.	28
Hirugarren jarduera: egindako lana aztertu.	29
Laugarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.	30
BIGARREN PROPOSAMENA.....	31
Lehen jarduera: idatzitako eguraldi-iragarpen baten ereduaz aztertu.....	32
Bigarren jarduera: eguraldi-iragarpenaren lan-gidoiaz idatzi.	35
Hirugarren jarduera: eguraldi-iragarpena idatzi.	37
Laugarren jarduera: egindako lana aztertu.	38
Bosgarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.	39
ENTZUNDAKOAREN ULERMENA: IRRATSAIOIA	40
Entzun bitartekoa	40
Entzun ondorengoia	42
HIRUGARREN PROPOSAMENA.....	43
Lehen jarduera: irratsailo bat aztertu.	44
Bigarren jarduera: irratsailo baten gidoiaz aztertu.	45
Hirugarren jarduera: irratsailoaren gidoiaz idatzi.	46
Laugarren jarduera: irratsailoaz grabatu.	47
Bosgarren jarduera: egindako lana aztertu.	48
Seigarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.	49

IKUSI ETA ENTZUNDAKOAREN ULERMENA: ERREPORTAJEA	50
Entzun eta ikusi aurretikoa	50
Entzun eta ikusi bitartekoa	51
Entzun eta ikusi ondorengoa	56
LAUGARREN PROPOSAMENA	57
Lehen jarduera: grabatutako aurkezpen bat aztertu.	58
Bigarren jarduera: hitzez hitz jasotako aurkezpen bat aztertu.	59
Hirugarren jarduera: bideoa grabatzeko gidoia idatzi.	60
Laugarren jarduera: bideoa grabatu.	61
Bosgarren jarduera: egindako lana aztertu.	62
Seigarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.	63
BOSGARREN PROPOSAMENA	64

SARRERA

Material hau B ereduko ikasleekin erabiltzeko prestatu dut, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleekin euskara lantzeko, hain zuzen.

Hasteko, ikastetxeko ikasleak inguru erdaldunean bizi dira, eta, hortaz, ez daude euskaraz aritzen ohituak; haietako gehienek ikastetxean bakarrik lantzen dute hizkuntza. Orduan, nire ustez, oso garrantzitsua da hizkuntza bera lantzeko modua erakargarria izatea.

Horretarako, euskarri bat behar nuela sentitzen nuen; alegia, halako ikasleekin lan egiteko moduko materiala sortu behar nuela, haien hizkuntza-mailara eta edukietara doitia. Eta horixe egiten saiatu naiz: eguraldiaren gaia hartu eta ikasleak era dibertigarrian euskara lantzeraz eta euskaraz aritzera bideratuko dituen materiala sortzen.

HIZTEGIA ABERASTEN

Lehen jarduera



Hau nahasmena! Hona hemen eguraldia iragartzeko hitzak eta irudiak. Hasteko, ea irudiak eta hitzak lotzeko gai zaren!

Oskarbi	Haize moderatua	Tximistak	Ekaitza	Lanbroa
Elurra	Eguzkitsu	Haize leuna	Temperatura behera	Haizetea
Zirimiria	Behe lainoa	Hodeitsu	Ostarteak	Haize zakarra
Haize indartsua	Trumoiak	Euri-zaparrada	Euri-jasa	Lainotsu
Temperatura gora	Txingorra	Kazkabarra	Haize hozkirria	Temperatura behera

Bigarren jarduera



Jada badakizu irudiek zer esan nahi duten. Zer hitz erabiliko zenuke behean agertzen diren eguraldi-fenomenoak adierazteko? Idatzi hitzak taulan.

ZERUA	
TENPERATURA	
PREZIPITAZIOA	
HAIZEA	

Hirugarren jarduera



Askotan, ez dugu leihotik begiratu behar izaten zer eguraldi dagoen jakiteko. Zentzumenek laguntzen digute horretan; batez ere entzumenak, euririk ari duen edo haizerik dabilen jakiteko, eta ukimenak, bero ala hotz dagoen jakiteko.

Hona hemen eguraldiarekin zerikusia duten hitzak (onomatopeiak). Zer eguraldi-fenomenorekin lotuko zenituzke? Irakurri ozenki, eta jarri irudimena martxan, lagungarri izango zaizu eta.

ZAPAR-ZAPAR	
DIR-DIR	
MARA-MARA	
FIR-FIR	
BORRONBONBON	
BRIST-BRAST	
KISKI-KASKA	
DINDAI	
SIRI-SIRI	
FIRI-FARA	
FLIST-FLAST	
KARRAK	
BURRUNBUNBUN	
TXIRULIRU	
KRAS-KRAS	

Laugarren jarduera



Eguraldi-iragarpenak egiteko hainbat hitz ikasi dituzu; horien artean, taulan agertzen diren zenbait onomatopeia. Aukeratu gehien gustatzen zaizkizunak, eta antzestu. Ea zure ikaskideak gai diren zer eguraldi-fenomenori dagozkien asmatzeko.

ZAPAR-ZAPAR

DIR-DIR

MARA-MARA

FIR-FIR

BORRONBONBON

BRIST-BRAST

KISKI-KASKA

DINDAI

SIRI-SIRI

FIRI-FARA

FLIST-FLAST

KARRAK

BURRUNBUNBUN

TXIRULIRU

KRAS-KRAS

Bosgarren jarduera



Jolas egiteko gogoz? Hona hemen eguraldiari lotutako hitzak bilatzeko letra-zopa bat. Argi ibili! Ea hitz guztiak aurkitzen dituzun. Aurrera!

EGURALDIA

H	L	C	F	D	U	J	A	J	A	Z	B	L	K	E
A	J	X	Q	J	N	H	T	N	S	I	B	R	X	K
I	N	R	O	P	C	R	O	U	T	R	M	J	N	A
Z	T	P	S	K	H	M	S	D	F	I	B	B	J	I
E	X	K	T	Q	O	R	K	Q	G	M	R	X	T	T
T	I	M	A	H	D	V	A	R	W	I	Y	V	H	Z
E	N	Z	R	W	E	P	R	N	E	R	Y	L	L	A
A	G	A	T	Z	I	U	B	R	P	I	K	C	A	Y
U	O	P	E	E	T	N	I	D	R	A	M	G	N	W
T	R	A	A	W	S	E	S	X	Q	R	C	H	B	X
Y	R	R	K	Y	U	L	T	N	S	B	C	Y	R	Y
E	A	R	L	S	Q	U	O	U	T	Z	N	F	O	F
I	E	A	J	P	A	R	H	J	X	R	K	Q	A	J
L	T	D	Y	E	R	R	T	U	Q	V	V	D	F	R
Y	P	A	A	G	Y	A	W	B	R	R	H	K	T	O

EKAITZA
 ELURRA
 HAIZETEA
 HODEITSU
 LANBROA
 OSKARBI
 OSTARTEAK
 TXINGORRA
 ZAPARRADA
 ZIRIMIRIA


Seigarren jarduera



Jolasean jarraitzeko gogorik bai? Hor dituzu hitz gurutzatuak.



EGURALDIA



Created on TheTeachersCorner.net Crossword Maker

HORIZONTALA

- 6. EURI FIN-FINA
- 7. GAUZAK IKUSEZINAK BIHURTZEN DITUEN LAINO MOTA

BERTIKALA

- 1. IZOTZ-PILOTAK
- 2. ZERU GARBI-GARBIA
- 3. ZERUTIK ERORTZEN DIREN LUMA HEZEAK
- 4. BAT-BATEKO ARGI- ETA SOINU-FESTA
- 5. HAIZE OSO INDARTSU ETA ZAKARRA

Zazpigarren jarduera



Gustatzen al zaizu mezu sekretuak ebaztea? Hona hemen kodetuta dauden esaera zahar batzuk. Ea zure taldekideekin batera deskodetzen dituzun eta zer esanahi duten azaltzeko gai zaren!

A= ✌	b= 0	c= 𐌆	d= 𐌇	E= 𐌋	f= ✎	G= 𐌄	h= 𐌆	i= 𐌆	j= er
a= 𐌆				e= 𐌆		g= 𐌆			
k= &	l= ●	M= 𐌆*	n= ■	ñ= ↑	o= □	p= □	q= □	r= □	S= 𐌆
		m= ○							s= 𐌆
t= 𐌆	u= 𐌆	v= 𐌆	w= 𐌆	x= 𐌆	y= 𐌆	z= 𐌆	, = 𐌆	. = 𐌆	

«Eguzkia eta euria, Erromako zubia»

1. 𐌋𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆
 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆 𐌆𐌆

Esaera : _____

 Azalpena: _____

«Goizeko laino gorri, gaueko iturri»

2. ☝️🗲️🔪🔪🗲️🗲️ ●🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🔪🗲️🗲️
🗲️🔪🔪🗲️🗲️🗲️☝️

Esaera : _____

Azalpena: _____

«San Tomas eguna, argitu orduko iluna»

3. 🗲️🗲️🔪🗲️ ❄️🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🔪🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🗲️🗲️🗲️
🗲️🗲️🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🔪🗲️🗲️🗲️☝️

Esaera : _____

Azalpena: _____

«Apirileko egunak, hiru aro»

4. ☝️🗲️🗲️🗲️🗲️●🗲️🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🗲️🔪🗲️🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🗲️🗲️🗲️ 🗲️🗲️🗲️☝️

Esaera : _____

Azalpena: _____

«Maiatza infernu, ekain-uztailak zeru»

5. ♀♁♂♂♁♁ ♁♁♂♁♁♁♁♁

♁♁♂♁♁♁♁♁♁♁♁ ♁♁♁♁♁♁♁

Esaera : _____

Azalpena: _____

Zortzigarren jarduera



Orain zure txanda da. Bilatu eguraldiarekin zerikusia duten esaera zahar pare bat, eta azaldu ikaskideei zer esanahi duten. Ondoren, esaera zahar guztiakin horma-irudi bat egingo dugu, eta eskolako korridorean jarriko.

Esaera zaharrak bilatzeko zailtasunak badituzu, egin klik esteka hauetan:

<http://www.pelloerota.com/lanak/esaerak/hasiera.htm>

<http://ibarrasanbartolome.com/documentospdf/Atsotit>

Esaera : _____

Azalpena: _____

Esaera : _____

Azalpena: _____

ENTZUN ETA IKUSI AURRETIKOA



Telesaio bat eta irratsaio bat ikusi eta entzungo ditugu, eguraldi-iragarpen bat nola egiten den ikasteko. Hori egin baino lehen, saia zaitetze galderei erantzuten.

1. Zer da eguraldi-iragarpen bat?

2. Nola dakizu zer eguraldi egingo duen?

3. Non aurki dezakezu eguraldi-iragarpen bat?

4. Eguraldiaren berri izan nahi duzunean, non bilatzen duzu informazioa?

5. Zertarako ikusten edo entzuten duzu eguraldi-iragarpena?

6. Zure ustez, egunean zehar zenbat aldiz iragartzen dute eguraldia?
Zuk zeuk zer unetan ikusten edo entzuten duzu eguraldi-iragarpena?

7. Eguraldia iragartzen dutenean, adi egoten al zara? Zergatik?

8. Norekin hitz egiten duzu eguraldiari buruz?

9. Eguraldia iragartzea garrantzitsua al da pertsonen bizitzan?
Zergatik?

IKUSI ETA ENTZUNDAKOAREN ULERMENA: TELESIAIOA



Hona hemen telebistan egiten duten moduko eguraldi-iragarpen bat. Arretaz entzun eta ikusi ondoren, erantzun galderei.

Eguraldi-iragarpena (bideoa)

ENTZUN ETA IKUSI ONDORENGOA

1. Zure ustez, eguneko zer unetan eman dute eguraldi-iragarpen hori?

2. Zer urtarori dagokio?

3. Zer eguraldi egingo du orokorrean?

4. Zer eguraldi izango da kostaldean?

5. Eta barnealdean?

6. Eta ekialdean?

7. Eta mendebaldean?

8. Zer-nolako tenperaturak izango dira?

9. Non izango dute tenperatura maximoa?

10. Eta minimoa?

11. Nolakoa izango da haizea orokorrean?

12. Non ibiliko da haizea indartsu?

13. Eguneke zer unetan ibiliko da haizea indartsu?

14. Zer aholku ematen du telebistako aurkezleak?

15. Zergatik ematen du aholku hori?

16. Zer titulu jarriko zenioke eguraldi-iragarpenari?



Galderei erantzun eta gero, erantzunak taldean partekatuko ditugu.

ENTZUN ETA IKUSITAKOARI BURUZKO HAUSNARKETA

1. Gustatu al zaizu jarduera? Zergatik?

2. Ondo ulertu al duzu erreportajearen esandakoa? Zer egin zaizu zailen?

3. Bat al datoz aldeez aurretik pentsatzen zenuena eta telebista ikusitakoa? Azaldu.

4. Aipatu zer ikasi duzun.

IDATZITAKOAREN ULERMENA



Hona hemen egunkariko lau eguraldi-iragarpen. Badakizue iragarpenarekin batera mapa bat etortzen dela. Badirudi oraingo honetan kazetaria lasterka ibili dela eta mapan zenbait informazio jartzea ahaztu egin zaiola. Zergatik ez duzu berak idatzitakoarekin mapa osatzen?

EGURALDI-IRAGARPENA 1
ALDAKETARIK EZ

Gaur ez dugu aldaketa handirik espero. Zerua oskarbi dela esnatuko gara; hala ere, egunean zehar zerua hodeiz estaliko da.

Kostaldean, eguna fresko hasiko da; baina, eguzkiak berotu ahala, epeldu egingo du.

Barnealdean, elur-maluta batzuk eror daitezke goizean, eta, iluntzean, izotza egiteko arriskua dago.

Temperaturei dagokienez, mantendu egingo dira, ez da aldaketa handirik espero.



Tenperatura altuenak Bilbon eta Donostian izango dira, 12 eta 13 gradu, hurrenez hurren, eta baxuenak Gasteiz eta Iruñan, 4 eta 5 gradu zero azpitik.

Iparraldeko haize hozkirria nagusituko da lurralde osoan.

TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):	
BILBO: 3 °C eta 13 °C	BAIONA: -1 °C eta 10 °C
DONOSTIA: 2 °C eta 12 °C	DONIBANE GARAZI: -2 °C eta 8 °C
GASTEIZ: -4 °C eta 5 °C	MAULE-LEXTARRE: -3 °C eta 6 °C
IRUÑEA: -5 °C eta 7 °C	LOGROÑO: -1 °C eta 6 °C

ULERMENA SAKONTZEN 1

1. Eguraldi-iragarpena irakurri eta gero, zer ez duzu ulertu?

2. Hitz guztiak ulertu al dituzu? Zein ez?

3. Eguraldi-iragarpen honetan, eguraldia aztertzeko hitz zehatz batzuk erabiltzen dira. Bilatu zein diren testuan, eta bete taula hau:

Zerua	
Prezipitazioa	
Temperatura	
Haizea	
Kokapena (hegoaldea, kostaldea...)	

4. Taula aztertu eta gero, ba al dakizu zer urtarotan idatzi den eguraldi-iragarpena?

5. Eguraldi-iragarpenaren titulua hau da: «Aldaketarik ez». Zu kazetaria bazina, titulu hori aukeratuko al zenuke? Zergatik? Zer beste titulu jar dakioke?

6. Testuaren egitura aztertzen badugu, zer zati ditu eguraldi-iragarpenak?


EGURALDI-IRAGARPENA 2 BEROA NAGUSI

Eguraldi ederra gaurkoa, eguzkitsua eta temperatura altuekin. Termometroa 28 °C-ra helduko da kostaldeko hainbat lekutan, eta 25 °C-ra barnealdean.

Kostaldean, giro eguzkitsua eta dotorea izan dugu; zeruan hodei fin batzuk agertuko diren arren, eguzkia nagusituko da.

Barnealdean, behe lainoa sartuko da gauean, eta baliteke eguerdi arte irautea.

Temperaturek gora egingo dute, eta oso altu mantenduko dira; ez da gorabehera handirik espero temperatura maximo eta minimoen artean.



Haizea indartsu sartuko da hegoaldetik; gogor joko du, batez ere kostaldean eta Arabako lautadan, Gasteiz inguruan.

Eguraldia ezohikoa da gauden urtarorako, baina San Martinetako uda txikia oraindik gure artean da.

TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):

BILBO: 24 °C eta 28 °C	BAIONA: 20 °C eta 26 °C
DONOSTIA: 22 °C eta 28 °C	DONIBANE GARAZI: 18 °C eta 22 °C
GASTEIZ: 18 °C eta 25 °C	MAULE-LEXTARRE: 17 °C eta 20 °C
IRUÑEA: 17 °C eta 23 °C	LOGROÑO: 18 °C eta 22 °C

ULERMENA SAKONTZEN 2

1. Eguraldi-iragarpena irakurri eta gero, zer ez duzu ulertu?

2. Hitz guztiak ulertu al dituzu? Zein ez?

3. Eguraldi iragarpen honetan, eguraldia aztertzeko hitz zehatz batzuk erabiltzen dira. Bilatu zein diren testuan, eta bete taula hau:

Zerua	
Prezipitazioa	
Temperatura	
Haizea	
Kokapena (hegoaldea, kostaldea...)	

4. Taula aztertu eta gero, ba al dakizu zein urtarotan idatzi den eguraldi-iragarpena?

5. Eguraldi iragarpenaren titulua hau da: «Beroa nagusi». Zu kazetaria bazina, titulu hori aukeratuko al zenuke? Zergatik? Zer beste titulu jar dakioke?

6. Testuaren egitura aztertzen badugu, zer zati ditu eguraldi-iragarpenak?


EGURALDI-IRAGARPENA 3 EGURALDI EZ-EGONKORRA

Eguraldi nahasia gaurkoa; denetik izango dugu. Goizean goiz, eguraldi ederra izango dugu; baina, egunak aurrera egin ahala, ilundu eta okertu egingo da.

Oro har, tenperaturak epel mantenduko dira, gorabehera handirik gabe.

Kostaldean, goizean zehar, zerua hodei beltzez estaliko da, eta euri-zaparrada mardulak botako ditu eguerdi partean.

Barnealdean, berriz, euri-zaparradak izango ditugu goizean, eta, eguna igaro ahala, zerua argitzen joango da. Arratsaldean, ostarteak izango dira nagusi.



Tenperatura epelak izango dira kostaldean, 15-17 °C bitartekoak; barnealdean, berriz, freskoagoak, 12-14 °C ingurukoak.

Haizea indartsu sartuko da ekialdetik.

Esan ohi denez: «Apirileko egunak, hiru aro».

TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):	
BILBO: 12 °C eta 17 °C	BAIONA: 10 °C eta 15 °C
DONOSTIA: 12 °C eta 16 °C	DONIBANE GARAZI: 9 °C eta 13 °C
GASTEIZ: 8 °C eta 14 °C	MAULE-LEXTARRE: 8 °C eta 12 °C
IRUÑEA: 7 °C eta 12 °C	LOGROÑO: 7 °C eta 13 °C

ULERMENA SAKONTZEN 3

1. Eguraldi-iragarpena irakurri eta gero, zer ez duzu ulertu?

2. Hitz guztiak ulertu al dituzu? Zein ez?

3. Eguraldi-iragarpen honetan, eguraldia aztertzeko hitz zehatz batzuk erabiltzen dira. Bilatu zein diren testuan, eta bete taula hau:

Zerua	
Prezipitazioa	
Temperatura	
Haizea	
Kokapena (hegoaldea, kostaldea...)	

4. Taula aztertu eta gero, ba al dakizu zein urtarotan idatzi den eguraldi-iragarpena?

5. Eguraldi-iragarpenaren titulua hau da: «Eguraldi ez-egonkorra». Zu kazetaria bazina, titulu hori aukeratuko al zenuke? Zergatik? Zer beste titulu jar dakioko?

6. Testuaren egitura aztertzen badugu, zer zati ditu eguraldi-iragarpenak?

EGURALDI-IRAGARPENA 4 EKAITZA NAGUSI

Gaur, egun osoan, zerua hodei beltzez estalita edukiko dugu. Aurreko egunetan egindako beroaren eraginez, toki askotan ekaitzak joko du, eta tximista ugari izango dira, bai kostaldean, bai barnealdean.


Bestalde, ipar-haizeak eraginda, temperaturek behera egingo dute: 7-8 °C artekoak izango dira. Horrek giroa freskatzea eragingo du.

Kostaldean, zerua goizean goiz estaliko da, eta, eguerdirako, ekaitza izango dute bertan.

Barnealdean, goizean goiz izango dute ekaitza, batez ere mendialdean.

Nahiz eta temperatura dezente jaitsi, giroa epela izango da; kostaldean, temperatura 20 °C-ren bueltan ibiliko da, eta, barnealdean, zertxobait freskoagoa izango da: 18 °C.

Ipar-haize hotza sartuko da, indartsu. Kostaldean, haizete arriskua dago.



TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):

BILBO: 18 °C eta 20 °C	BAIONA: 16 °C eta 19 °C
DONOSTIA: 17 °C eta 20 °C	DONIBANE GARAZI: 16 °C eta 18 °C
GASTEIZ: 16 °C eta 18 °C	MAULE-LEXTARRE: 16 °C eta 17 °C
IRUÑEA: 15 °C eta 19 °C	LOGROÑO: 16 °C eta 19 °C

ULERMENA SAKONTZEN 4

1. Eguraldi-iragarpena irakurri eta gero, zer ez duzu ulertu?

2. Hitz guztiak ulertu dituzu? Zein ez?

3. Eguraldi-iragarpen honetan, eguraldia aztertzeko hitz zehatz batzuk erabiltzen dira. Bilatu zein diren testuan, eta bete taula hau:


Zerua	
Prezipitazioa	
Tenperatura	
Haizea	
Kokapena (hegoaldea, kostaldea...)	

4. Taula aztertu eta gero, ba al dakizu zein urtarotan idatzi den eguraldi-iragarpena?

5. Eguraldi-iragarpenaren titulua hau da «Ekaitza nagusi». Zu kazetaria bazina, titulu hori aukeratuko al zenuke? Zergatik? Zer beste titulu jar dakioko?

6. Testuaren egitura aztertzen badugu, zer zati ditu eguraldi-iragarpenak?

LEHEN PROPOSAMENA



Lehen jarduera: teleaio bat aztertu.



Eguraldi-iragarpena aztertu ondoren, nola egiten den ikasiko dugu, eta nork berea prestatzeko lehen urratsak emango ditu.

Eguraldi-iragarpena (bideoa)

BIDEOA AZTERTZEKO KONTROL-ZERRENDA	BAI	EZ
Eguraldi-esatariak lasai hitz egin du, eta isiluneak errespetatu ditu.		
Eguraldi-esatariak azkarregi hitz egin du; batzuetan, ez zaio ondo ulertu.		
Ahots-bolumen egokia erabili du.		
Hitz egitean, hitzak ondo ahoskatu ditu.		
Urduri dagoela erakutsi du: ilea ukitzen, sudurrean hazka egiten, makulu-hitzak (eee, ummm...) esaten eta etengabe mugitzen aritu da.		
Eskuak eta gorputza erabili ditu azalpena ondo ulerrarazi eta indartzeko.		
Eskuak poltsikoan sartuta egin du azalpena.		
Antzeztokian, mugitu egin da azalpena indartzeko.		
Azalpena modu ordenatuan egin du.		
Azalpenean erabilitako hitzak egokiak izan dira.		
Azalpenean erabilitako irudiak egokiak izan dira.		
Pantailaren laguntzaz egin du azalpena.		
Ikus-entzule guztiei zuzendu die begirada.		
Pantailari begira egon da denbora guztian, eta bizkarra eman die ikus-entzuleei.		
Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikaskideak agurtu ditu.		
Azalpenaren bukaeran aholku bat eman die ikaskideei.		
HOBETZEKO PROPOSAMENAK		
1.		
2.		

Bigarren jarduera: bideoa grabatu.



Heldu da bideoa grabatzeko unea. Behean dituzun jarraibideek lana garatzen lagunduko dizute.

JARRAIBIDEAK

Jendaurrean egin aurretik, gutxienez entsegu bat egin.

Lasai hitz egin eta isiluneak errespetatu.

Ahots-bolumen egokia erabili.

Argi hitz egin, hitzak ondo ahoskatuz.

Lasai zaudela erakutsi: ez ibili ilea ukitzen, sudurrean hazka egiten, makulu-hitzak (eee, ummm...) esaten eta etengabe mugitzen.

Eskuak eta gorputza erabili azalpena indartzeko.

Ez sartu eskuak poltsikoetan azalpena egiten ari zarenean.

Antzertokian mugitu azalpena indartzeko.

Azalpena modu ordenatuan egin.

Hitz egokiak erabili azalpenean.

Pantaila erabili azalpena egiteko.

Irudiak erakutsi azalpena indartzeko.

Ikaskide guztiei zuzendu begirada.

Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikaskideak agurtu.

Gaia ondo prestatu ikaskideen galderei erantzuteko.

Hirugarren jarduera: egindako lana aztertu.



Telesaioa grabatuta daukazu; orain, egindako lana aztertzeko garaia da. Horretarako, erabili autoebaluazio-fitxa, zure lana aztertu eta hobetzeko aukera emango dizu eta.

AUTOEBALUAZIO-FITXA

IKASLEA:..... IKASTURTEA:..... TALDEA:

	BAI	EZ
Jendurrean egin aurretik, gutxienez entsegu bat egin dut.		
Lasai hitz egin dut, eta isiluneak errespetatu ditut.		
Azkarregi hitz egin dut, eta, batzuetan, esandakoa ulertezina izan da.		
Ahots-bolumen egokia erabili dut.		
Argi hitz egin dut, hitzak ondo ahoskatuz.		
Urduri nagoela erakutsi dut: ilea ukitzen, sudurrean hazka egiten, makulu-hitzak (eee, ummm, ...) esaten eta etengabe mugitzen aritu naiz.		
Eskuak eta gorputza erabili ditut azalpena indartzeko.		
Eskuak poltsikoan sartuta izan ditut azalpena egiten aritu naizenean.		
Antzeztokian, mugitu egin naiz azalpena indartzeko.		
Azalpena modu ordenatuan egin dut.		
Azalpenean erabilitako hitzak egokiak izan dira.		
Pantailaren laguntzaz egin dut azalpena.		
Irudiak erabili ditut azalpena indartzeko.		
Ikaskide guztiei zuzendu diet begirada.		
Pantailari begira egon naiz denbora guztian, eta bizkarra eman diet ikaskideei.		
Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikaskideak agurtu ditut.		
Ikaskideek egindako galderei erantzun diet.		

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.


Laugarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.



Zure autoebaluazio-fitxan dituzun hobetu beharreko aldeak kontuan hartuta, berriro grabatuko duzu telesaioa; azkenik, zure irakaslearekin batera, hemen behean duzun ebaluazio-errubrika beteko duzu, egin duzun lana ebaluatzeko.

AHOZKO EKOIZPENA (TELESAIOA) EBALUATZEKO ERRUBRIKA				
IKASLEA:..... IKASTURTEA:..... TALDEA:				
	OSO ONDO	ONDO	NAHIKOA	HOBETU BEHARRA
AHOSKERA	Hitzak ondo ahoskatzen ditu, eta esandakoa ondo ulertzen da.	Hitzak ez ditu beti ondo ahoskatzen, baina esandakoa ulertzen da.	Hitz egitean, maiz trabatzen da, eta esandakoa ulertzen zaila da.	Hitzak ahoskatzeko arazoak ditu, eta esandakoa ez da ulertzen.
AHOTS-BOLUMENA	Hitz egitean, ahots-bolumen egokia erabiltzen du.	Hitz egiten hasten denean, ahots-bolumen egokia du; baina, azalpenean aurrera egin ahala, jaisten doa.	Baxuegi hitz egiten du.	Oso baxu hitz egiten du, eta ia ez da entzuten esandakoa.
JARRERA	Jarrera naturala du, eta publikoari zuzentzen dio begirada. Antzertokian, mugitu egiten da azalpena indartzeko.	Publikoari begira dago, baina zerbaiten kontra jarrita gu gorputza. Zenbait unetan, mugitu egiten da azalpena indartzeko.	Aldizka, publikoari bizkarra ematen dio. Antzertokian, ia ez da mugitzen azalpena indartzeko.	Etengabe ematen dio bizkarra publikoari. Antzertokian, ez da mugitzen azalpena indartzeko.
EDUKIA	Landutako edukia aurkezten du, eta egitura eta hitz egokiak erabiltzen ditu.	Landutako edukia aurkezten du, baina erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukian, datuak falta dira, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukia eskasa da, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira batere egokiak.
DOKUMENTAZIOA (MATERIALA)	Azalpen osoan zehar irudiez baliatzen da, hura indartzeko.	Ia azalpen osoan zehar irudiez baliatzen da, hura indartzeko.	Noizean behin, irudiez baliatzen da azalpena indartzeko.	Ez da irudiez baliatzen azalpena indartzeko.
IDEIEN-ORDENA	Azalpenak zentzuzko segida bat jarraitzen du.	Azalpenak ez du beti zentzuzko segida jarraitzen, baina ulergarria da.	Azalpena nahiko nahasia da, eta ulertzen zaila.	Azalpena nahasia eta ulertezina da.

BIGARREN PROPOSAMENA



Eskolako webgunerako eguraldi-iragarpen bat idaztea, webgunea bisitatzeko duten guztiek irakurtzeko aukera izan dezaten.

Lehen jarduera: idatzitako eguraldi-iragarpen baten eredua aztertu.



Gogoratu idatzi baino lehen zer hartu behar duzun kontuan.

Eguraldi-iragarpenaren egiturari eustea.

Eguraldi-iragarpenaren edukia garatzea.

Hiztegi egokia erabiltzea.

Egiturak zaintzea: aditza, esaldien barneko hitzen ordena, lokailuak, etab.

Puntuazioa eta ortografia zaintzea.



Hona hemen eguraldi-iragarpena idazteko lagungarria izan daitekeen eredu bat.

EGURALDI-IRAGARPENA											
BERRIAREN EGITURA	<p>TITULUA (laburra eta esanguratsua) : Neguko egun beroa</p> <p>EDUKIAK (zerua, tenperatura eta haizea) :</p> <ul style="list-style-type: none"> EGURALDIAREN JOERA OROKORRA: Zerua oskarbi, eta zirimiria, mendebaldeko mendialdean. Tenperaturak, gora. Maximoak eta minimoak berdintsu mantenduko dira lurralde osoan. TENPERATURA MAXIMOA ETA MINIMOA: Maximoa, Bilbon : 23 °C. Minimoa, Logroñon: 4 °C. EREMU GEOGRAFIKOETAN (kostaldean, barnealdean, Iparraldean, etab.) IZANGO DEN JOERA: Kostaldean, ostarteak. Barnealdean, oskarbi. Mendebaldeko mendietan, zirimiria. HAIZEA: Hegoaldekoa, indartsu. EREMU GEOGRAFIKOAN DAUDEN HIRIETAKO TENPERATURA MINIMO ETA MAXIMOEN TAULA, : <table border="1"> <tr> <td colspan="2">TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):</td> </tr> <tr> <td>BILBO: 10 °C eta 23 °C</td> <td>BAIONA: 9 °C eta 22 °C</td> </tr> <tr> <td>DONOSTIA: 8 °C eta 22 °C</td> <td>DONIBANE GARAZI: 7 °C eta 22 °C</td> </tr> <tr> <td>GASTEIZ: 5 °C eta 22 °C</td> <td>MAULE-LEXTARRE: 7 °C eta 22 °C</td> </tr> <tr> <td>IRUÑEA: 7 °C eta 22 °C</td> <td>LOGROÑO: 4 °C eta 20 °C</td> </tr> </table>	TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):		BILBO: 10 °C eta 23 °C	BAIONA: 9 °C eta 22 °C	DONOSTIA: 8 °C eta 22 °C	DONIBANE GARAZI: 7 °C eta 22 °C	GASTEIZ: 5 °C eta 22 °C	MAULE-LEXTARRE: 7 °C eta 22 °C	IRUÑEA: 7 °C eta 22 °C	LOGROÑO: 4 °C eta 20 °C
	TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):										
BILBO: 10 °C eta 23 °C	BAIONA: 9 °C eta 22 °C										
DONOSTIA: 8 °C eta 22 °C	DONIBANE GARAZI: 7 °C eta 22 °C										
GASTEIZ: 5 °C eta 22 °C	MAULE-LEXTARRE: 7 °C eta 22 °C										
IRUÑEA: 7 °C eta 22 °C	LOGROÑO: 4 °C eta 20 °C										
	<p>GORPUTZA</p> <p>IRUDIA: zeruari, tenperaturari eta haizeari dagozkien sinboloek agertu behar dute.</p>										

NEGUKO EGUN BEROA

Negua izateko, gaur giro beroa izango dugu lurralde osoan zehar, eta, hegoaldeko haizearen eraginez, temperaturak gora egingo du.

Kostaldean, zerua oskarbi dela esnatuko gara; hala ere, hodeiak nagusituko dira, eta, gau aldera, zeru osoa estaliko dute.

Barnealdean, zerua oskarbi mantenduko da; horren ondorioz, arratsalde aldera, temperaturak behera egingo du nabarmenki.


Mendebaldean, hodeiak nagusituko dira mendialdean, eta zirimiri arriskua handia izango da.

Temperaturei dagokienez, gora egingo dute, eta horrela mantenduko dira datozen egunotan, hegoaldetik datorren haizearen eraginez. Temperatura altuenak berdintsu ibiliko dira; altuena Bilbon izango da, 23 gradu, eta baxuena Logroñon, 4 gradu.

Haizea indartsu ibiliko da lurralde osoan; kostaldean, olatu handiak sortuko ditu.

TENPERATURA (MINIMOA ETA MAXIMOA):

BILBO: 10 °C eta 23 °C	BAIONA: 9 °C eta 22 °C
DONOSTIA: 8 °C eta 22 °C	DONIBANE GARAZI: 7 °C eta 22 °C
GASTEIZ: 5 °C eta 22 °C	MAULE-LEXTARRE: 7 °C eta 22 °C
IRUÑEA: 7 °C eta 22 °C	LOGROÑO: 4 °C eta 20 °C



Bigarren jarduera: eguraldi-iragarpenaren lan-gidoia idatzi.



Eguraldi-iragarpena idazten hasi baino lehen, bete beheko taula; informazioa ordenatzen lagunduko dizu, eta errazago egingo duzu lan.

EGURALDI-IRAGARPENA		
BERRIAREN EGITURA	TITULUA (laburra eta esanguratsua) :	
	GORPUTZA	<p>EDUKIAK (zerua, tenperatura eta haizea) :</p> <ul style="list-style-type: none"> • EGURALDIAREN JOERA OROKORRA: • TENPERATURA MINIMOA ETA MAXIMOA: • EREMU GEOGRAFIKOETAN (kostaldean, barnealdean, Iparraldean, etab.) IZANGO DEN JOERA: • HAIZEA: • EREMU GEOGRAFIKOAN KOKATUTA DAUDEN HIRIETAKO TENPERATURA MINIMO ETA MAXIMOEN TAULA.
	IRUDIA: zeruari, tenperaturari eta haizeari dagozkien sinboloek agertu behar dute.	



Behin taula beteta, hona hemen eguraldi-iragarpena idazteko lagungarriak izan daitezkeen zenbait egitura.

Datozen orduotan, eguraldi ona izango dugu.

Bihar, eguraldi euritsua izango dugu.

Elurra **ari du** barnealdean.

Euria **dator**.

Kostaldean, haize indartsua **nagusituko da**.

Ez da gorabehera handirik espero.

Aldaketa dator.

Goizean-goiz...

Oro har...

Giro euritsua, eguzkitsua, haizetsua, beroa, hotza...

Temperaturei dagokienez...

Laugarren jarduera: egindako lana aztertu.



Eskolako webgunean eskegitzeko eguraldi-iragarpena idatzita daukazu; orain, egindako lana aztertzeko garaia da. Horretarako, erabili autoebaluazio-fitxa, zure lana aztertu eta hobetzeko aukera emango dizu eta.

AUTOEBALUAZIO-FITXA	BAI	EZ
Eguraldi-iragarpena egiteko taulan dauden osagai guztiak kontuan hartu ditut, eta ondo bereizi: titulua, gorputza eta irudia.		
Idatzi dudana titulua laburra, erakargarria eta esanguratsua da.		
Erabilitako hiztegia gaiarekin bat dator, eta egokia da.		
Hirugarren pertsonan idatzita dago.		
Eguraldi-iragarpena idaztean, ez dut nire iritzirik eman.		
Irudi bat erabili dut eguraldi-iragarpena indartzeko.		
Edukiak ordena egokian eman ditut.		
Ortografia zaindu dut («h», «s», «z», etab.).		
Puntuazioa zaindu dut («.», «,», etab.).		
HOBETZEKO PROPOSAMENAK		
1.		
2.		
3.		
4.		

Bosgarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.



Zure autoebaluazio-fitxan dauden hobetzeko proposamenak kontuan hartuta, idatzi berriro eguraldi-iragarpena; azkenik, zure irakaslearekin batera, hemen behean duzun ebaluazio-errubrika beteko duzu, zure lana ebaluatzeko.

EGURALDI-IRAGARPENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA				
IKASLEA: IKASTURTEA: TALDEA:.....				
	OSO ONDO	ONDO	NAHIKOA	HOBETU BEHARRA
TESTUAREN EGITURA	Titulua, gorputza eta irudia ditu, eta ondo berezita agertzen dira.	Titulua eta gorputza ondo berezita ditu, baina irudia falta da.	Titulua eta gorputza ez daude ondo berezita.	Egituraren osagaiak nahasia daude.
TITULUA	Laburra, erakargarria eta esanguratsua da.	Laburra eta esanguratsua da, baina ez erakargarria.	Luzeegia da.	Edukiarekin ez dauka erlaziorik.
EDUKIA	Landutako edukia aurkezten du; egitura eta hitz egokiak erabiltzen ditu.	Landutako edukia aurkezten du, baina erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukia aurkeztean, datuak falta dira, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukia eskas aurkezten du, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira batere egokiak.
IDEIEN-ORDENA	Azalpenak zentzuzko segida bat jarraitzen du.	Azalpenak ez du beti zentzuzko segida jarraitzen, baina ulergarria da.	Azalpena nahiko nahasia da, eta ulertzen zaila.	Azalpena nahasia eta ulertezina da.
ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA	Ortografia eta puntuazio-markak zuzen erabili ditu.	Nahiz eta ortografian eta puntuazioan zenbait huts izan, testua ondo ulertzen da.	Ortografian eta puntuazioan akats nabarmenak dira; testua zaila da ulertzen.	Ortografian eta puntuazioan egindako akatsek testua ulertezina bihurtzen dute.
TESTUAREN AURKEZPENEA	Erabilitako letra mota eta haren tamaina eta kolorea egokiak dira; testua oso ondo kokatu da, erakargarriagoa izan dadin.	Erabilitako letra mota eta haren tamaina eta kolorea egokiak dira; testua egoki kokatuta dago.	Erabilitako letra mota eta haren tamaina egokiak dira; aldiz, letra-kolorea eta testuaren kokapena ez dira egokiak.	Erabilitako letra mota eta haren tamaina eta kolorea ez dira egokiak, ezta testuaren kokapena ere.

ENTZUNDAKOAREN ULERMENA: IRRATSAIOA



Hona hemen irratian egiten den moduko eguraldi-iragarpen bat. Arretaz entzun ondoren, saiatu zure ikaskideekin batera galderei erantzuten.

Eguraldi-iragarpena (irratsaioa)

ENTZUN BITARTEKOA

1. Zure ustez, eguneko zer unetan eman dute eguraldi-iragarpen hori?

2. Zer eguraldi egingo du orokorrean?

3. Zer eguraldi izango da kostaldean?

4. Eta barnealdean?

5. Eta ekialdean?

6. Zein izango da eguneko tenperatura maximoa?

7. Eta minimoa?

8. Non izango dute tenperatura epelena?

9. Eta hotzena?

10. Zer joera izango du tenperaturak? Eutsi egingo dio, behera egingo du ala igo egingo da?

11. Zer urtarori dagokio eguraldi-iragarpen hori?

12. Zer aholku ematen du irratiko esatariak?

13. Zergatik ematen du aholku hori?

14. Irratiko esatariak honela deskribatzen du iragarriko duen eguraldia: «Ahal dela, etxetik ez ateratzeko modukoa». Zuk nola deskribatuko zenuke?

15. Zer titulu jarriko zenioke eguraldi-iragarpenari?



Galderei erantzun eta gero, erantzunak taldean partekatuko ditugu.

ENTZUN ONDORENGOA

1. Gustatu al zaizu jarduera? Zergatik?

2. Ondo ulertu al duzu entzundakoa? Zer egin zaizu zailen?

3. Bat al datoz alde zaurretik pentsatzen zenuena eta irratsaioan entzundakoa? Azaldu.

4. Aipatu zer ikasi duzun.

HIRUGARREN PROPOSAMENA



Eguraldiaren berri hainbat ikus-entzunezkotan izaten dugu. Oraingo honetan, irratsaio baten grabazioa entzun eta aztertuko dugu denon artean. Zertarako? Eguraldi-iragarpen bat grabatu, eskolako webgunean eskegi eta bisitariak horren berri izan dezaten.

Parte hartzeko prest? Irrati-esatari izateko irrikan? Ziur baietz! Beraz, martxan jarriko gara!

Lehen jarduera: irratsaio bat aztertu.



Eguraldi-iragarpena aztertu ondoren, nola egiten den ikasiko dugu, eta nork berea prestatzeko lehen urratsak emango ditu.

Eguraldi-iragarpena (irratsaioa)

IRRATSAIOA AZTERTZEKO KONTROL-ZERRENDA		BAI	EZ
Motelegi hitz egiten du: isiluneak luzeegiak dira.			
Azkarregi hitz egin du, eta, batzuetan, esandakoa ulertezina da.			
Irakurtzen dabilela dirudi.			
Ahots-bolumen egokia erabili du.			
Hitzak ondo ahoskatu ditu.			
Urduri dagoela erakutsi du: makulu-hitzak (eee, ummm...) erabili ditu.			
Azalpena modu ordenatuan egin du.			
Azalpenean erabilitako hitzak egokiak izan dira.			
Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikus-entzuleak agurtu ditu.			
Azalpenaren bukaeran, aholku bat eman die ikus-entzuleei.			
HOBETZEKO PROPOSAMENAK			
1.			
2.			

Bigarren jarduera: irratsaio baten gidoia azertu.



Irrati-esatariek programa prestatzeko gidoi bat izaten dute. Gidoi horrek gida-lana egiten die, eta, horrela, esan beharrekoa gogoratzen dute. Gidoian idatzitakoak laburra, argia eta esanguratsua izan behar du, irrati-esatariak saioa egitean erraz segi dezan.

Hona hemen irrati-gidoia idazteko lagungarria izan daitekeen eredua.

IRRATI-GIDOIA

Programaren izena: *Gure eguraldia*

Gaia: *eguraldia*

Irrati-esataria: *Ane*

Iraupena: *2 minutu*

Grabazio-data: *2015/12/09*

Emateko data: *2015/12/09*

Hasierako agurra:

Egun on, entzuleok!

Norberaren aurkezpena eta informazioa nondik ari den ematen:

Ane, Gure eguraldia programatik.

Eguraldiaren joera orokorra:

Negua izanik ere, giro beroa izango dugu, hegoaldetik datorren haize beroaren eraginez.

Zerua oskarbi ikusiko dugu lurralde osoan zehar, baina zirimiria nagusituko da mendebaldeko mendialdean.

Orokorrean, tenperaturak gora egingo du.

Tenperatura maximoa eta minimoa:

Tenperatura altuena Bilbon izango da, 23 °C, eta baxuena, Logroñon, 4 °C.

Eremu geografikoetan (kostaldean, barnealdean, Iparraldean, etab.) izango den joera:

Kostaldean eta barnealdean, zerua oskarbi ageriko da; bestalde, mendebaldean lainotsu egongo da, eta mendialdean zirimiri-arriskua izango da.

Haizea:

Hegoaldeko haize indartsuak joko du kostaldean, eta olatu handiak eragingo ditu.

Aholku bat:

Kontuz ibili haizearekin, bai itsasertzean, bai mendialdean, gogor joko baitu.

Bukaerako agurra:

Agur, entzuleok! Egun ona izan.

Hirugarren jarduera: irratsaioaren gidoia idatzi.



Orain, zure txanda da ! Has zaitez lanean!

IRRATI-GIDOIA

Programaren izena:

Gaia:

Irrati-esataria:

Iraupena:

Grabazio-data:

Emateko data:

Hasierako agurra:

Norberaren aurkezpena eta informazioa nondik ematen ari den:

Eguraldiaren joera orokorra:

Tenperatura maximoa eta minimoa:

Eremu geografikoetan (kostaldean, barnealdean, Iparraldean, etab.) izango den joera:

Haizea:

Aholku bat:

Bukaerako agurra:

Laugarren jarduera: irratsaioa grabatu.



Irratsaioaren egitura landu eta gero, prestatuta zaude saioa grabatzen hasteko. Orain, zure txanda da. Grabatzeko orduan, kontuan izan jarraibide hauek.

JARRAIBIDEAK:

Grabazioa egin aurretik, gutxienez entsegu bat egin.

Lasai hitz egin, eta denbora eta isiluneak errespetatu.

Ahots-bolumen egokia erabili.

Argi hitz egin, hitzak ondo ahoskatuz.

Lasai zaudela erakutsi: makulu-hitzik (eee, umm...) ez erabili.

Azalpena modu ordenatuan egin.

Hitz egokiak erabili azalpenean.

Azalpenaren hasieran eta bukaeran, entzuleak (ikaskideak) agurtu.

Irratsaioaren gidoia prestatuta izan.

Ondo prestatu gaia, ikaskideek egingo dituzten galderari erantzuteko.

Bosgarren jarduera: egindako lana aztertu.



Irratsaioa grabatuta daukazu; orain, egindako lana aztertzeko garaia da. Horretarako, erabili autoebaluazio-fitxa, zure lana aztertu eta hobetzeko aukera emango dizu eta.

AUTOEBALUAZIO-FITXA

IKASLEA:..... IKASTURTEA:..... TALDEA:

	BAI	EZ
Motelegi hitz egin dut, isiluneak luzeegiak dira eta.		
Azkarregi hitz egin dut, eta, batzuetan, esandakoa ulertezina izan da.		
Irakurtzen nabilela dirudi.		
Ahots-bolumen egokia erabili dut.		
Hitzak ondo ahoskatu ditut.		
Hitzen intonazioa egokia izan da.		
Urduri nagoela erakutsi dut, makulu-hitzak (eee, ummm...) erabili baititut.		
Azalpena modu ordenatuan egin dut.		
Azalpenean erabilitako hitzak egokiak izan dira.		
Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikus-entzuleak (ikaskideak) agurtu ditut.		
Azalpenaren bukaeran, aholku bat eman diet ikus-entzuleei.		

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

1.

2.

Seigarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.



Autoebaluazio-fitxan dituzun hobetu beharreko aldeak kontuan hartuta, berriro grabatuko duzu irratsaioa; azkenik, zure irakaslearekin batera, hemen behean duzun ebaluazio-errubrika beteko duzu, egin duzun lana ebaluatzeko.

AHOZKO EKOIZPENA (IRRATSAIOA) EBALUATZEKO ERRUBRIKA				
IKASLEA:..... IKASTURTEA:..... TALDEA:				
	OSO ONDO	ONDO	NAHIKO	HOBETU BEHARRA
AHOSKERA	Hitzak ondo ahoskatzen ditu, eta esandakoa ondo ulertzen da.	Hitzak ez ditu beti ondo ahoskatzen, baina esandakoa ulertzen da.	Hitz egitean, maiz tratatzen da, eta esandakoa ulertzen zaila da.	Hitzak ahoskatzeko arazoak ditu, eta esandakoa ez da ulertzen.
AHOTS-BOLUMENA	Hitz egitean, ahots-bolumen egokia erabiltzen du.	Hitz egiten hasten denean, ahots-bolumen egokia du; baina, azalpenean aurrera egin ahala, jaisten doa.	Baxuegi hitz egiten du.	Oso baxu hitz egiten du, eta ia ez da entzuten esandakoa.
JARRERA	Naturaltasunez hitz egiten du.	Naturaltasunez hitz egiten du, nahiz eta zenbait makulu-hitz erabili.	Tarteka irakuri egiten du, eta, maiz, makulu-hitzak erabiltzen ditu.	Prestatutako gidoia irakurtzen du.
EDUKIA	Landutako edukia aurkezten du, eta egitura eta hitz egokiak erabiltzen ditu.	Landutako edukia aurkezten du, baina erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukian, datuak falta dira, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukiaren datuak eskasak dira, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira batere egokiak.
IDEIEN ORDENA	Azalpenak zentzuzko segida bat jarraitzen du.	Azalpenak ez du beti zentzuzko segida jarraitzen, baina ulergarria da.	Azalpena nahiko nahasia da, eta ulertzen zaila .	Azalpena nahasia eta ulertezina da.

IKUSI ETA ENTZUNDAKOAREN ULERMENA: ERREPORTAJEA



Euskal Herria, 11 kolore erreportajea ikusiko duzu. Erreportaje horretan azaltzen dena ulertzeko, zenbait jarduera egingo ditugu. Ea gustukoak dituzun!

Eztabaidatu, taldetan; ondoren, erantzun galderei.

Euskal Herria, 11 kolore erreportajea

ENTZUN ETA IKUSI AURRETIKOA



1. Erreportajearen izena irakurri eta gero, zeri buruzkoa dela uste duzu?

2. Erreportajearen leloa «Gora aniztasuna!» da. Zer esan nahi du, zure ustez?

3. Nork uste duzu hartu duela parte?

4. Non uste duzu egin dela?



Esteka honetan klik egiten baduzu, erreportajea ikusiko duzu:

https://www.youtube.com/watch?v=Byp1Nq1_nMc

Erreportajea ikusi eta gero, ea gai zaren galdera hauei erantzuteko. Prest? Aurrera, bada!

ENTZUN ETA IKUSI BITARTEKOA

1. Nondik etorri dira *Euskal Herria 11 kolore* erreportajearen parte hartzen duten elkarrizketatuak?

ELKARRIZKETATUAK	SORTERRIA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

2. Non bizi dira orain?

ELKARRIZKETATUAK	BIZITOKIA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

3. Noiz etorri ziren Euskal Herrira?

ELKARRIZKETATUAK	EUSKAL HERRIAN DARAMATEN DENBORA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

4. Zer eguraldi egiten du haien sorterrietan?

ELKARRIZKETATUAK	SORTERRIKO EGURALDIA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

5. Nola deskribatzen dute Euskal Herriko eguraldia?

ELKARRIZKETATUAK	EUSKAL HERRIKO EGURALDIA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

6. Nola moldatu dira Euskal Herrian?

ELKARRIZKETATUAK	MOLDATZEA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

7. Zerk harritu ditu gehien?

ELKARRIZKETATUAK	HARRIDURA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

8. Zer da zailena haientzat? Zergatik?

ELKARRIZKETATUAK	ZAILTASUNA	ZURE IRITZIA
LEHENA		
BIGARRENA		
HIRUGARRENA		
LAUGARRENA		

9. Zertan eragin die eguraldi-aldaketak?

ELKARRIZKETATUAK	ERAGINA BIZITZAN
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

10. Zergatik uste duzu etorri direla Euskal Herrira?

ELKARRIZKETATUAK	ZURE IRITZIA
LEHENA	
BIGARRENA	
HIRUGARRENA	
LAUGARRENA	

11. Zure ustez, Euskal Herriko toki guztietan eguraldi berdintsua dugu ala aldatu egiten da toki batetik bestera? Azaldu.

12. Euskal Herrian zer eguraldi izatea gustatuko litzaizuke?



Hona hemen munduko mapa. Elkarrizketatuak munduko toki askotatik etorri dira Euskal Herrira. Kokatuko dituzu haien sorterriak mapan? Mapa honetan, ez dira herri horien izenak agertzen; beraz, ikertzaile-lana egin behar duzu orain. Zailtasunik izanez gero, egin klik esteka honetan:
<https://www.google.com/maps/d/viewer?mid=zLytgFfIdbl4.k81lwSESbr7g>





Galderei erantzun eta gero, erantzunak taldean partekatuko ditugu.

ENTZUN ETA IKUSI ONDORENGOA

1. Gustatu al zaizu jarduera? Zergatik?

2. Ondo ulertu al duzu erreportajearen esandakoa? Zer egin zaizu zailen?

3. Bat al datoz aldeez aurretik pentsatzen zenuena eta erreportajearen ikusitakoa? Azaldu.

4. Aipatu zer ikasi duzun.

LAUGARREN PROPOSAMENA



Euskal Herria 11 kolore erreportajea ikusi eta gero, konturatuko zinen elkarriketatuak munduko leku askotatik etorri direla eta, jakina, munduko zer lekutan bizi, eguraldiak halako ezaugarriak dituela.

Egin nahi duzu antzeko erreportaje bat? Ziur baietz! Hona hemen proposamena:

Oraingo honetan, zu zeu izango zara protagonista. Munduko herrialde bat aukeratuko duzu, bertako biztanle bihurtuko zara, eta han duzun eguraldiaren berri emango diezu ikaskideei. Haiek ere, beste herrialde bat aukeratu, eta gauza bera egingo dute. Horrela, munduko herrialde batzuetako eguraldiak eta paisaiak nolakoak diren ikasiko dugu. Erreportajea erakusteko, bideo bat grabatuko duzu. Gustatzen al zaizu proposamena? Ziur baietz! Beraz, aurrera!

Lehen jarduera: grabatutako aurkezpen bat aztertu.



Lehenik, grabatutako aurkezpen bat entzungo duzu. Adibidea aztertuta, argiago izango duzu zer egin behar duzun, eta prestatuago egongo zara gero bideoa grabatzeko. Beraz, jar zaitez martxan!

Paolaren aurkezpena

BIDEOA AZTERTZEKO KONTROL-ZERRENDAA	BAI	EZ
Hizlariak lasai hitz egin du, eta isiluneak errespetatu ditu.		
Hizlariak azkarregi hitz egin du; baina, batzuetan, esandakoa ulertezina izan da.		
Ahots-bolumen egokia erabili du.		
Hitz egitean, hitzak ondo ahoskatu ditu.		
Urduri dagoela erakutsi du: ilea ukitzen, sudurrean hazka egiten, makulu-hitzak (eee, ummm...) esaten eta etengabe mugitzen aritu da.		
Eskuak eta gorputza erabili ditu azalpena indartzeko.		
Eskuak poltsikoan sartuta izan ditu azalpena egiten aritu denean.		
Antzeztokian, mugitu egin da azalpena indartzeko.		
Azalpena modu ordenatuan egin du.		
Azalpenean erabilitako hitzak egokiak izan dira.		
Azalpenean erabilitako irudiak egokiak izan dira.		
Pantailaren laguntzaz egin du azalpena.		
Ikus-entzule guztiei zuzendu die begirada.		
Pantailari begira egon da denbora guztian, eta bizkarra eman die ikus-entzuleei.		
Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikus-entzuleak agurtu ditu.		
HOBETZEKO PROPOSAMENAK		
1.		
2.		

Bigarren jarduera: hitzez hitz jasotako aurkezpen bat aztertu.



Bideoa grabatu aurretik, egin gidoi bat, zer esan nahi duzun kontuan hartuta. Hona hemen adibide bat.

«Egun on, lagunok! Ni Paola naiz, eta, ikusten duzuenetz, Brasilgoa naiz; hain zuzen ere, Rio de Janeirokoa. Rion, bertakooi *carioca* deitzen digute.

Bertan, eguraldia tropikala da. Euri asko egiten du, ia egunero euri-zaparradak ditugu; baina, aldi berean, bero handia ere egiten du. Horregatik, gure landaredia hain ugaria eta berdea da. Ia urte osoan zehar, tenperatura berdina daukagu, ez da aldatzen. Horrek eragiten du urtaro desberdinik ez izatea. Gure tenperaturaren batez bestekoa 24 gradukoa da, gutxi gorabehera. Egunean zehar, 26 gradu ditugu, eta gauean, aldiz, 22 gradu.

Hemen, urte guztian, hondartzara joaten gara. Praka laburrekin eta txankletekin ibiltzen gara».

Hirugarren jarduera: bideoa grabatzeko gidoia idatzi.

Laugarren jarduera: bideoa grabatu.



Bideoaren egitura landu eta gero, prestatuta zaude saioa grabatzeko. Orain, zure txanda da. Grabatzeko orduan, kontuan izan jarraibide hauek.

JARRAIBIDEAK:

Grabatu aurretik, gutxienez entsegu bat egin.

Lasai hitz egin, eta isiluneak errespetatu.

Ahots-bolumen egokia erabili.

Argi hitz egin, hitzak ondo ahoskatuz.

Lasai zaudela erakutsi: ez ibili ilea ukitzen, sudurrean hazka egiten, makulu-hitzak (eee, ummm...) esaten eta etengabe mugitzen.

Eskuak eta gorputza erabili azalpena indartzeko.

Ez sartu eskuak poltsikoetan azalpena egiten ari zarenean.

Antzeztokian mugitu azalpena indartzeko.

Azalpena modu ordenatuan egin.

Hitz egokiak erabili azalpenean.

Pantaila erabili azalpena egiteko.

Irudiak erakutsi azalpena indartzeko.

Ikaskide guztiei zuzendu begirada.

Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikaskideak agurtu.

Gaia ondo prestatu ikaskideen galderei erantzuteko.

Bosgarren jarduera: egindako lana aztertu.



Bideoa grabatuta daukazu; orain, egindako lana aztertzeko garaia da. Horretarako, erabili autoebaluazio-fitxa, zure lana aztertu eta hobetzeko aukera emango dizu eta.

AUTOEBALUAZIO-FITXA

IKASLEA:..... IKASTURTEA:..... TALDEA:

	BAI	EZ
Grabatu aurretik, gutxienez entsegu bat egin dut.		
Lasai hitz egin dut, eta isiluneak errespetatu ditut.		
Azkarregi hitz egin dut, eta, batzuetan, esandakoa ez da ulertzen.		
Ahots-bolumen egokia erabili dut.		
Argi hitz egin dut, hitzak ondo ahoskatuz.		
Urduri nagoela erakutsi dut: ilea ukitzen, sudurrean hazka egiten, makulu-hitzak esaten (eee, ummm, ...) eta etengabe mugitzen aritu naiz.		
Eskuak eta gorputza erabili ditut azalpena indartzeko.		
Eskuak poltsikoan sartuta izan ditut azalpena egiten aritu naizenean.		
Antzeztokian, mugitu egin naiz azalpena indartzeko.		
Azalpena modu ordenatuan egin dut.		
Azalpenean erabilitako hitzak egokiak izan dira.		
Pantailaren laguntzaz egin dut azalpena.		
Irudiak erabili ditut azalpena indartzeko.		
Ikus-entzule guztiei zuzendu diet begirada.		
Pantaila begiratzen nengoen denbora guztian, eta lepoa eman diet ikaskideei.		
Azalpenaren hasieran eta bukaeran, ikaskideak agurtu ditut.		
Ikaskideek egindako galderei erantzun diet.		

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- 1.
- 2.
- 3.

Seigarren jarduera: lana hobetu, eta ebaluatu.




Autoebaluazio-fitxan dituzun hobetu beharreko aldeak kontuan hartuta, berriro grabatuko duzu pertsonaiaren bideoa; azkenik, zure irakaslearekin batera, hemen behean duzun ebaluazio-errubrika beteko duzu, egin duzun lana ebaluatzeko.

AHOZKO EKOIZPENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA				
IKASLEA:..... IKASTURTEA:..... TALDEA:				
	OSO ONDO	ONDO	NAHIKOA	HOBETU BEHARRA
AHOSKERA	Hitzak ondo ahoskatzen ditu, eta esandakoa ondo ulertzen da.	Hitzak ez ditu beti ondo ahoskatzen, baina esandakoa ulertzen da.	Hitz egitean, maiz trabatzen da, eta esandakoa ulertzen zaila da.	Hitzak ahoskatzeko arazoak ditu, eta esandakoa ez da ulertzen.
AHOTS-BOLUMENA	Hitz egitean, ahots-bolumen egokia erabiltzen du.	Hitz egiten hasten denean, ahots-bolumen egokia du; baina, azalpenean aurrera egin ahala, jaisten doa.	Baxuegi hitz egiten du.	Oso baxu hitz egiten du, eta ia ez da entzuten esandakoa.
JARRERA	Jarrera naturala du, eta publikoari zuzentzen dio begirada. Antzektokian, mugitu egiten da azalpena indartzeko.	Publikoari begira dago, baina zerbaiten kontra jarrita du gorputza. Zenbait unetan, mugitu egiten da azalpena indartzeko.	Aldizka, publikoari bizkarra ematen dio. Antzektokian, ia ez da mugitzen azalpena indartzeko.	Etengabe ematen dio bizkarra publikoari. Antzektokian, ez da mugitzen azalpena indartzeko.
EDUKIA	Landutako edukia aurkezten du, eta egitura eta hitz egokiak erabiltzen ditu.	Landutako edukia aurkezten du, baina erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukian, datuak falta dira, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira guztiz egokiak.	Landutako edukia eskasa da, eta erabilitako egiturak eta hitzak ez dira batere egokiak.
DOKUMENTAZIOA (MATERIALA)	Azalpen osoan, material gehigarria erabiltzen du, hura indartzeko.	Ia azalpen osoan, material gehigarria erabiltzen du, hura indartzeko.	Noizean behin, material gehigarria erabiltzen du azalpena indartzeko.	Ez du material gehigarrik erabiltzen azalpena indartzeko.
IDEIEN ORDENA	Azalpenak zentzuzko segida bat jarraitzen du.	Azalpenak ez du beti zentzuzko segida jarraitzen, baina ulergarria da.	Azalpena nahiko nahasia da, eta ulertzen zaila.	Azalpena nahasia eta ulertezina da.

BOSGARREN PROPOSAMENA

Asteko eguraldiak zer joera izango duen idaztea eta eskolako sarreran eta webgunean jartzea, bertako guraso, ikasle eta langileek irakurtzeko aukera izan dezaten.





Hona hemen asteko eguraldiaren joera. Eguneko eguraldi-iragarpenaz gain, hainbat ikus-entzunezko hurrengo egunetan izango den eguraldiaren berri ematen digute. Informazio hori orokorra izaten da: ez da zehazten, ez eremu geografikoa, ez temperatura, eta irudiekin indartzen da, hemen behean duzun ereduan bezala.

Astelehenean, lanbroa nagusituko da; temperaturak gora egingo du, eta haizea moderatua izango da.

Asteartean...

Asteazkenean...

Ostegunean...

Ostiralean...

Larunbatean...

Igandean...

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea



Jarraitu eredu, eta idatzi taulan agertzen diren egunetan zer eguraldi egingo duen, asteko eguraldiaren joera ikusteko:

PROZEDURA:

1. Eraiki taula bat.
2. Marraztu edo itsatsi bertan behar dituzun eguraldi-sinboloak, goian dagoen ereduan bezalaxe.
3. Bilatu behar duzun informazioa, eta idatzi asteko eguraldiak zer joera izango duen.
4. Azkenik, eskegi eskolako webgunean eta sarreran.

Aurrera!

Informazioa aurkitzeko zailtasunak izanez gero, egin klik esteka honetan:
<http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/home.apl?e=8>

Eguraldi-sinboloak irudi-bankuko karpetan aurkituko dituzu.